

ORIENTAZIO EKINTZAIETIK FAMILIA ENPRESEN EMAITZARA: ESTRATEGIARI BURUZKO ERABAKI- HARTZEAREN ANALISIA ADMINISTRAZIO KONTSEILU ETA ZUZENDARITZA MAILETAN

Tesiaren egilea: Unai Arzubiaga Orueta

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Finantza Ekonomia I

Tesi-zuzendaria: Amaia Maseda García eta Txomin Iturralde Jainaga

Tesiaren laburpena:

Dinamismo handiko eta aldaketa azkarreko testuinguru ekonomiko batean, enpresen biziraupenerako, bezero berrien eskaerei, merkatu lehiaketa handiagoari eta teknologia berrien hazkuntza azkarrari erantzuna ematea ezinbestekotzat jo da. Erantzun egoki horiek soilik jarrera ekintzaileak (EO) sustatuz zein mantenduz eman daitezke.

Familia-enpresak testuinguru aproposa dira jarrera ekintzailea zein horrek enpresaren emaitzan duen eragina aztertzeko, ekintzailetasuna eta familia-enpresak oso hertsiki lotuta baitaude. Izan ere, ekintzailetasuna familia-enpresen helburuak lortzeko bitartekoa da, hots, epe luzez bizirautea, sostengagarritasuna, hazkundera eta enpresaren zaharberritzea lortzeko nahitaezko faktorea da.

Familia-enpresetan familiaren eta enpresaren arteko elkarrekintzak enpresaren erabaki-hartze prozesuan zein jarrera ekintzailean eragiten du. Halere, argitzeke daude oraindik efektu horien nondik norakoak. Izan ere, zenbait ikertzaileen ustez familiaren eragina onuragarria izan daitekeen arren, beste batzuen aburuz desabantaila bihur liteke. Ikuspuntu kontrajarri horiek erabaki-hartze estrategikoak maila bakar batean neurtu izanaren ondorio izan daitezke, familiaren eraginak maila ezberdinetan efektu bereizi eta kontrajarriak izan baititzake. Zentzu horretan, arestian aipaturiko eragin hori desberdina izango da enpresaren Administrazio Kontseiluan eta Zuzendaritzan.

Doktore-tesi honen helburu nagusia familia-enpresen Administrazio Kontseilu eta Zuzendaritza mailetan estrategia-erabaki-hartzeak EOren garapenean zein EO enpresaren emaitza bilakatzeko prozesuan nola eragiten duen aztertzea da.

Espainiako Estatuko 230 familia-enpresak osaturiko lagina aintzat harturik eta izaera enpirikoa duten ikerlanetan gero eta ohikoagoa den Structural Equation Modeling (SEM) deritzon analisi-metodoa baliatuz, zenbait ondorio esanguratsu azaleratu ditugu.

Horietako bat da Administrazio Kontseiluaren zein Zuzendaritzaren konposizioak berebiziko garrantzia daukala, enpresaren ekintzaitasuna sustatzeko zein ekintzaitasuna bera emaitzetan islatzeko garaian. Hala, bi maila horietan aniztasun ezak ondorio kaltegarriak izan ditzake. Oro har, familia-enpreetan hain hedatuta egon den erabaki-hartze organoen konposizioak (belaunaldi bereko familiako kide gizonezkoak) enpresen ekintzaitasuna mugatu ohi du. Bestalde, batez ere Administrazio Kontseiluen kasuan, portaerarekin zerikusia duten aldagaiek ere garrantzia handia dute. Izan ere, inplikazio estrategiko handia daukaten Administrazio Kontseiluek familia-enpresek oro har dauzkaten zenbait urritasun leuntzen laguntzen baitute, hala nola jakintza- eta eskarmentu-arloetan aniztasun eza, bai eta ekimen berriak abian jartzeko beharrezkoak diren arriskuak hartu nahi ez izatea.